

"MOVISTAR+ LOCALES PÚBLICOS" Y "LOCALES DE APUESTAS" TELEBISTA-ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

1 XEDEA

Dokumentu honen xedea jarraian azaltzen diren Movistar+ Locales Públicos eta locales de Apuestas zerbitzuak emateko Baldintza Orokorrak (aurrerantzean, "Baldintza orokorrak") zehaztea da, zeinak TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. (aurrerantzean, MOVISTAR) IFZ: A-82018474, eta helbidea Madrilen, Gran Vía 28 kalean, 28013 Madril, dituen eta Madrilgo Merkataritza-erregistroan erregistratua 13.170 alea; 0 liburua; 8. atala; M-213.180 orrian, eta zerbitzuaren BEZEROAREN arteko (aurrerantzean, BEZEROA) kontratu-harremana arautzen duen, MOVISTAR+ deritzon zerbitzua emateari dagokionez (aurrerantzean, MOVISTAR+ ZERBITZUA)

MOVISTARREK Zerbitzua eman ahal izateko ezinbestekoa da Baldintza Orokor hauek guztiak onartzea. BEZEROAK adierazten du, zentzu horretan, irakurri, ulertu eta onetsi dituela zure eskura jarritako Baldintza Orokor hauek, zeinak nahi duenean irakurri ahal izango dituen hurrengo Web orrian: <http://www.movistar.es/contratos>

2 MOVISTAR+ LOCALES PÚBLICOS ETA LOCALES DE APUESTAS ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA KONTRATAZIOA

2.1 Deskribapena

MOVISTAR+ Locales Públicos eta locales de Apuestas Zerbitzuak MOVISTAR+ seinala atzitzeko zerbitzuak dira.

Baldintza Orokor hauei dagokionez, Lokal Publikotzat hartuko dira etxekoa ez izanik kontratatutako programazio-paketea jaso eta jendeari edo bezeroei helarazteko erabiliko den tokia, hau da, hornitutako Zerbitzua kontratatu ondoren, ekoizpen edo merkataritza katea osatzen edo hartan barneratzen den Lokala, Lokala pertsona fisiko edo juridiko gisa hartzen baita enpresa jardueraren edo jarduera profesionalaren esparruan, publikoa edo pribatua. Lokalen erregimenetik at geratzen dira hurrengoak: saltoki handiak, merkataritza guneak, gune publikoak, aireportuak, geltokiak, aisialdirako guneak, elkarteak, klubak, gimnasioak, bulegoak, itxaron-gelak, garraiobideak, bolatokiak, kolektibitateak (hotelak, ospitaleak, egoitzak eta kuartelak, esaterako) eta funtzio edo helburu nagusizat ikus-entzuneko lan edo ikuskizunak hedatzea dutenak (esaterako, zinemak, antzokiak, diskotekak, aretoak, kontzertu-aretoak, auditorioak, estadioak eta polikiroldegia), establezimendu horien tabernak, kafetegiak eta jatetxeak, eta aipaturikoen ezaugarriak dituzten gainerako establezimenduak izan ezik.

Kontratuaren baldintza orokor hauek eskumena duen agintaritzaren baimena duten eta etxebizitza ez diren kirol apustuak egiteko lokalei hornitzeko zerbitzuen erabilera ere arautzen

dute (aurrerantzean, Apustuen lokala, Enpresa edo Bezeroa) eta Enpresari baimena ematen zaio satelitez eta kodeatuta hornitzen den kontratatutako programazio-paketea osatzen duten kanalei dagokien seinale digitala jasotzeko, erabilera-unitateari dagozkion aukera eta ordainketa-zerbitzuentzat, satelite bidezko beste zerbitzu digitalentzat eta, hori aukeratu bada, hornitutako materialarentzat ere.

Zerbitzu horrek hurrengo prestazioak hartzen ditu:

- Nazioko, tokiko, gaikako eta, dagokionean, BEZEROAK kontratatutako paketearen arabera MOVISTAREk probatzeko horni ditzakeenak.

Zerbitzu hau, gainera, Movistar+ Locales Públicos telekomunikazioko pakete espezifikoaren barruan sartzen da. Movistar+ Locales Públicos modalitate bakoitzean sartzen diren kanalen xehetasunak ikus ditzakezu hemen:

- Taberna:
<http://www.movistar.es/empresas/para-tu-oficina/television>
- Apustu-lokalak:
<http://www.movistar.es/empresas/para-tu-oficina/television/locales-apuestas/>

BEZEROAK kontratatutako edukiak atzitu ahal izango ditu, zeinak bistaratu ahal izango dituen erosketak balio duen bitartean edo hileko kuotak zehazten duen aldian. Prezioak LOKAL PUBLIKO ETA APUSTU-LOKALEN PREZIOAK biltzen dituen l. eranskinean datoz.

MOVISTAREk kanalen eskaintza eta haien edukia aldatu ahal izango ditu, eta kopurua zein osaera alda daitezke, ondorioz, kanal eta eduki horien hornitzaileekin dituen kontratuen arabera konpromisoen arabera, haietan egiten diren aldaketak direla eta. Bezeroak uneoro izango du eskuragarri zerbitzuaren modalitate bakoitzean webgunean argitaratutako informazioan kanalen zerrendari buruzko informazio eguneratua.

2.2 Kontratu modalitateak

BEZEROAK, kontratatutako zerbitzuari eta teknologia desberdinen estaldura desberdinei jarraiki, zeina beharrezkoa den azpiegituraren hedapenaren mende dagoen, hurrengo aukeretako bat atzitu ahal izango du:

- MOVISTAR+ IPTV bitartez. ASDSL/VDSL bidezko IPTV teknologientzat, BEZEROAK aldi berean erabiltzen baditu Banda Zabaleko Interneterako sarbidea eta TBko kateetarako sarbidea, telefono-zentralean sartzeko begiztaren kalitatearen arabera, BEZEROAK duen Interneterako Sarbide-zerbitzuaren kalitatea 2.000 Kbit/s arte gutxiago daiteke sare-erabiltzaile noranzkoan
- MOVISTAR+ Satelite bidez Bezeroak erabaki duelako, arrazoi teknikoak direla eta, edo arrazoi teknikoen edo azpiegituren ondorioz, TB Satelitez hornitzeko prestazioa kontratatzen bada, Bezeroak alde aurretik eduki beharko du hornikuntza-zerbitzu hori kontratatuta DTS

DISTRIBUIDORA DE TELEVISIÓN DIGITAL, S.A.-rekin (aurrerantzean, DTS), Baldintza Orokor hauen 11.1 Baldintzan xedatutakoa beteaz.

IPTV edo Satellite bidez ematen denean, BEZEROAREN negozioan jarri beharko da, gutxienez oinarrizko ekipamendu teknikoa, hau da, DESKODEGAILUA, eta, beharrezkoa denean, Satellite bidez TB hornitzeko zerbitzuaren kontratuan sartzen den materiala.

Movistar + Locales Públicos eta Locales de Apuestas zerbitzuen kasuan, ez dago erabilgarri Movistar+ Gailuetan, zeinak OTT bidez ahalbidetzen dute ikustea edukiak.

MOVISTAR+ zerbitzuaren alta eraginkorra TB zerbitzua instalatzen denean izango da.

2.3 Multi+ Zerbitzua:

Multi+ ZERBITZUA kontratatutako MOVISTAR+ eskaintza osora lokal bereko hainbat gelatik aldi berean sartzea ahalbidetzen duen zerbitzu osagarria da. Horri esker, hainbat eduki desberdin ikusi daitezke aldi berean. BEZEROA deskodegailu guztietatik sartu ahal izango de bere harpidetzetan, kanaletan, TB kanaletan eta edukietan.

MOVISTAR-ek berretsiko du kasu zehatz bakoitzean zerbitzua erabilgarri dagoen ala ez.

Multi+ ZERBITZUA behar bezala emateko, BEZEROAK MOVISTAR+ IPTV edo SAT bidez ikusteko behar duen ekipamenduz gain, beste DESKODEGAILU gehigarri batzuk eduki beharko ditu alokatuta (IPTV bidezko zerbitzurako ikusi l. eranskina LOKAL PUBLIKOEN ETA APUSTU-LOKALEN PREZIOAK). Seinalea behar bezala jasotzeko Telefónica-ren soluzioren baten bidez konektatu beharko da.

Multi+ DESKODEGAILUEN erabilera-baldintzei dagokienez, DESKODEGAILU NAGUSIARENTZAKO 3.2 atean adierazitakoa beteko da.

Multi+ ezingo da erabili Satellite bidezko sarbidea duten Lokal Publikoetan.

3 BEZEROAREN INSTALAZIOA ETA EKIPAMENDUA

MOVISTAR+ ZERBITZUA behar bezala emateko, BEZEROAK hurrengo ekipazioa beharko du: DESKODEGAILUA, telebista ikusteko ekipoa, MOVISTAR+ zerbitzuarekin bateragarria den Modem/routerra IPTV kasuan. Ekipamendu horretatik, DESKODEGAILUA MOVISTARREK hornituko du jarraian zehazten diren baldintzetan. Telebista ikusteko ekipoa EZ DA SARTZEN MOVISTAR+ ZERBITZUAN, beraz, ez du MOVISTARREK hornituko kontratu honen arabera eta bezeroak berak hornitu beharko du.

3.1 - Instalazio-zerbitzua.

Kontratu honen arabera eta BEZEROARI MOVISTAR+ ZERBITZU egokia eman ahal izateko, MOVISTARREK, zuzenean edo baimendutako instalatzaile baten bitartez, beharrezkoa den ekipamenduaren hasierako instalazioa burutuko du, zein hurrengoez egon daitekeen osatuta:

- ADSL teknologian, nahi bada, edo beharrezkoa dela ikusten denean: Ahots-/datu-iragazki zentralizatuaren instalazioa (aurrerantzean, "Splitter") sarera konektatzen den puntuan edo BEZEROAREN telefono-terminaletan iragazki bereizleak.Splitterra MOVISTARrena da.
- Bestela, Splitterretik BEZEROAREN Routerrera dagoen tarterako kableak.
- Modem/Routerraren eta Deskodegailuaren arteko tramurako kableak, gehienez 10 metro (aurrerantzean, "Kableak"), BEZEROAK haririk gabeko deskodegailua aukeratzen duenean izan ezik.
- Modem/Routerraren eta Deskodegailuaren instalazioa eta konfigurazioa eta BEZEROAREN telebistaikusteko gailura konexioa.

MOVISTARREK Zerbitzuaren hasierako konexio-eskaera jaso eta hurrengo 15 egunetan jarri beharko du, gehienez 30 egunera luza daitekelarik zenbait lurraldetan, teknikoki posible denean, eskatzailearen erruzko oztopoak ez daudenean. MOVISTARREK BEZEROARI berretsiko dio teknikoki zerbitzua ematea badagoela hura kontratatu aurretik.

Izan ere, hainbat arrazoiengatik, obra gehiago egin beharra, hirugarrenen lizentzia edo ziklo batzuetan eskaerak areagotzeagatik esaterako, hasierako konexio-epea luzatu ahal izango da, eskatzaileari aurretik jakinarazten bazaio.

3.2 Deskodegailua.

MOVISTARrek alokairuan utziko du deskodegailua eta prezioa MOVISTAR+ Zerbitzuaren hileko kuotan sartuko da. (Ikus I ERANSKINA LOKAL PUBLIKO ETA APUSTU-LOKALEN PREZIOAKS LOCALES PÚBLICOS Y LOCALES DE APUESTAS)

Deskodegailu hori BEZEROAREN telebista ikusteko ekipora bideo konexioaren bitartez konektatuko da.

3.2.1 Deskodegailuaren bateragarritasuna

MOVISTARrek jakinarazten du MOVISTAR + ZERBITZURAKO erabiltzen diren sarbide baldintzatuko sistema eta deskodegailua irekiak eta bateragarriak izateko operadoreen arteko adostasuna beharrezkoa dela. Akordio horiek sinatu ez direnez, MOVISTAR+ ZERBITZURAKO erabiliko den deskodegailua ezingo da erabili beste operadore batzuen seinalea atzitzeko.

3.2.2 Deskodegailuaren bilketa

Linearen helbidea aldatzen delako edo matxurarengatik deskodegailua bildu behar denean, MOVISTAR ez da deskodegailuan gordetako datuak galtzearen erantzule izango, ezta BEZEROAri itzuliko zaion ekipoa bildutakoa ez izatearen erantzulea ere.

3.3 Zerbitzua hartzeko beharrezko materiala TB satellite bidez hartzen denean.

Material horri dagokionez, eta baita bere instalazioari, zaintzari eta haien itzuleraren inguruko betebeharrei ere, zerbitzu hori kontratatzeko Baldintzetan zehazten dena beteko da, 11.1 Klausulan aurreikusitako terminoetan MOVISTARri emandako kontratua, hain zuzen ere.

4 - MOVISTARREN OBLIGAZIOAK

Kontratu honen arabera, MOVISTARrek, zuzenean edo baimendutako laguntza teknikoko zerbitzuaren bitartez, BEZEROEN arreta-zerbitzua emango du, zeinak merkataritza-harremanak eta laguntza teknikoa emango duen, eta hurrengo ezaugarriak izango dituen:

4.1 BEZEROEN Arreta Teknikoko Zerbitzua

Web (<https://atencionalcliente.movistar.es/>) bidez edo telefonoz (1002) kontsulta daitekeen zerbitzua da, zeinak Arazoen Diagnostika eta Konponketa eskaintzen duen. Asteko 7 egunetako 24 orduetan dago erabilgarri, eta Zerbitzu hori BEZEROAK eskaera egin duenean emandako helbidean emango du, beti ere deskodegailuaren jatorrizko akatsen ondoriozkoa bara arazoa, inoiz ez erabilera okerrarengatik bada, beste norbaitek manipulatu badu eta, azken finean, BEZEROAREN erruz izan bada, eta baita hartan biltzen ez diren elementuentzat barne, non BEZEROAK joan-etorriaren, konpondutako ekipoen eta egindakolanen gastuak ordaindu beharko dituen derrigorrez. Esku-hartze gastu horiek BEZEROAK prestazioa eskatzen duen unean indarrean daudenak izango dira. Arazoak konpontzeko zerbitzu desberdinen prezioak 1004 Arreta Pertsonaleko Linean edo <http://www.movistar.es> webguneko Koadro Orokorrean bildutakoak dira.

Zerbitzu honetan ez da sartzen BEZEROAREN ekipo informatikoaren arazoentzako laguntza teknikoa, ezta Modem/Routarraren arazoentzako laguntza teknikoa ere.

4.2 - Eskuragarritasuna.

MOVISTARrek urte osoan zehar (365) eguneko 24 orduetan zerbitzu erregularra eta jarraitua emateko obligazioa izango du.

Hala ere, Zerbitzu hori MOVISTARrek Sareko Mantentze-lanak egiteko ezinbestekoa den denbora-tartean eten ahal izango da (aurrerantzean, "Sareko Mantentze-lanak"), edo ezusteko batez edo arrazoi saihestezinez eten daiteke. Edonola ere, MOVISTARrek BEZEROAri jakinaraziko dio,

erabilgarri dauden baliabideetako baten bitartez (posta elektronikoa, gutuna, telefono-deia, MOVISTAR+ ZERBITZUAREN web orria, etab.), Sarearen Mantentze-lanen data, teknikoki posible denean eta aurretik denbora nahikoarekin abisatu ondoren.

MOVISTARrek ahal duen guztia egingo du eten horiek ahalik eta lasterren bukatzeko, BEZEROAri ahalik eta kalte txikiena eragin diezaion.

MOVISTAR ez da BEZEROAREN ekipo informatikoaren edo Modem/Routeraren erantzule izango, ezta ekipamendu horiek Zerbitzuaren funtzionamendu arruntean eragin ditzaketen kalteena ere. Gainera, hirugarren baten esku-hartzeak eragindako erabilgarritasun eza edo etenen erantzulea ez da izango, ezta BEZEROAK zein bere inguruko norbaitek ekipoak gaizki erabili dituelako, edoepai zein administrazio eskakizunen aurrean ere.

MOVISTAR ez da BEZEROAREN TELEBISTA hartzeko ekipoaren erantzule izango, ezta ekipamendu horrek Zerbitzuaren funtzionamendu arruntean eragin ditzakeen kalteena ere.

MOVISTARrek ahal duen guztia egingo du Zerbitzuaren funtzionamendu zuzena bermatzeko. Hala ere, zerbitzua ezin bada exekutatu edo hura atzeratzen bada, ez da BEZEROAri eragindako kalteen erantzulea izango nahitaezko arrazoiengatik bada edo Enpresaren ekipoak gaizki konfiguratuta daudelako zein MOVISTARren sistemak erabiltzeko ahalmena ez dutelako teknikoki ezinezkoa denean. Kasu horietan, BEZEROAK uko egiten dio MOVISTARri erantzukizunik, kalterik eta galerarik eskatzeari, kontratuaren arabera edo kontratutik kanpokoak, kontratatutako Zerbitzua atzitzean eta erabiltzean egon daitezkeen akatsengatik, moteltasunarengatik edo errorengatik, eta uko egiten dio dirua galtzeagatik edo BEZEROA galtzeagatik erreklamazioa egiteari, eta inola ere ez, MOVISTARrek ez du onartuko datuen galeren, negozioa eten izanagatik edo Zerbitzua ongi ez ibiltzeagatik edo kontratua sinatu duenaren nahiak guztiz ez asetseagatik eragindako kalteen erantzule izatea. Kontratatutako Zerbitzuaren erabilera BEZEROAREN erantzukizuna da, beraz, MOVISTAR ez da erantzule izango (ez zuzenean ezta modu zeharrenean ere) kontratatzaileak hirugarrenei eragin diezaiokkeen kalte zuzen edo zeharrenean aurrean.

4.3 - Eskuragarritasun ezagatik erantzukizuna.

MOVISTAR MOVISTAR + ZERBITZUAREN eskuragarritasun ezaren erantzulea izango da, "Bermatutako eskuragarritasun ezaren iraupena" atalean aurreikusitakoaren arabera zenbatutako eskuragarritasun ezaren denboran zehar.

Kasu horretan, MOVISTARrek BEZEROAri itzuli beharko dio MOVISTAR + ZERBITZUAREN hileko kuota zati bat, etenak iraun duen denborari dagokion portzentajea.

Horri dagokionez, ez da eskuragarritasun ezatzat hartuko: (a) Zerbitzua etetea Sareko Mantentze-lanak egiteko, beharrezkoa den bitartean; (b) BEZEROAK Hardware edo Software elementuak sartu izanagatik edo ekipoa MOVISTAR+ ZERBITZUAREN bitartez internetera konektatzeko elementuekin bateragarriak ez izateagatik ekipoaren erabilera okerrak eragindako MOVISTAR+ ZERBITZUAREN etena; (c) MOVISTARrena ez den sarbide-sarearen zatian aurkitutako matxurak

(BEZEROAren Telekomunikazioko eta Sareko Azpiegitura Komunak), (d) BEZEROAREN erruz Zerbitzua ezin erabiltzea, ezustekoa, nahitaezkoa edo epai zein administrazio ebazpenengatik, edo MOVISTARren erruz ez den beste edozein kasutan.

Gainera, ez da eskuragarritasun eza izango, satellite bidezko TB kasuan, BEZEROAk erabilera-baldintzen aurka erabiltzen duenean Zerbitzua, edo zerbitzua haren baldintza orokorre jarraituz emateko beharrezkoak dire materialei lotutako gomendio teknikoak edo gailuak mantentze-baldintzak jarraitzen ez badira.

4.4 - Eskuragarritasun eza bermatuaren iraupena.

"Erantzukizuna eskuragarritasun ezarengatik" atalean bildutako eraginentzat, MOVISTAR + ZERBITZUAK bermatutako eskuragarritasun eza BEZEROAREN matxura-abisua jasotzen den unetik matxura konpondu eta MOVISTAR + ZERBITZUA berrezartzen den unera arte igarotako denbora iraungo du.

Etxean konpondu beharra dagoenean, MOVISTARrek hitzordu bat eskainiko dio BEZEROARI. BEZEROAK ez du zertan onartu MOVISTARrek eskainitako lehenengohitzordua. Kasu horretan, aldiz, MOVISTARrek eskainitako lehenengo hitzordu horren etaazkenean BEZEROAK onartzen duen hitzorduaren artean igarotako denbora ez da sartuko Zerbitzuaren eskuragarritasun eza zenbatzeko.

Gainera, Zerbitzuaren gabeziaren iraupenaren zenbaketa etengo da, aurretik hitzordua adostuta, BEZEROAK MOVISTARri bere instalazioak edo ekipo informatikoa atzitzeko beharko dituen datuak eman bitartean. Hortaz, hitzordutzat hartzen da MOVISTAR eta BEZEROAren artean hartutako matxura konpontzeko lanentzako data, ordua eta lekua adosten duen konpromisoa. Gainera, zenbaketa horri kenduko zaio BEZEROARI zenbatuko zaion birgaitze eraginkorrean atzeratutako denbora.

4.5 Deskodegailua.

MOVISTARren obligazioa izango da alokatutako DESKODEGAILUAN gerta daitezkeen matxurak. DESKODEGAILUAREN konponketa, MOVISTARrek iritziaren arabera, DESKODEGAILUA prestazio baliokideak dituen beste batez ordeztzea edo matxuratutako unitate funtzionala BEZEROAren etxean konpontzea izan daiteke.

5 - BEZEROAREN OBLIGAZIOAK.

Hauek dira BEZEROAREN obligazioak:

5.1 - Zerbitzuaren prezioa.

5.1.1 - Prezioak.

Zerbitzua jasotzeagatik, BEZEROAK modalitate bakoitzari dagokion prezioa ordaindu beharko du une bakoitzean indarrean dagoen prezioaren arabera.

Egungo prezioak I. ERANSKINEAN ("PRECIOS LOCALES PÚBLICOS") eta II. ERANSKINEAN ("PRECIOS LOCALES DE APUESTAS") agertzen diren prezioen koadroetan daude jasota.

5.1.2 - Prezio aldaketak.

Aplikatu diren prezioen aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkio MOVISTARrek BEZEROARI 16. baldintzan aurreikusitako bideetatik, gutxienez hilabete bat lehenago (1).

BEZEROAK tarifa berrieekin ados ez dagoela adieraziko balu, Baldintza Orokor hauetan araututako zerbitzuak emateko harremana bukatutzat eman ahal izango du, BEZEROARENTZAKO isunik edo kosturik eragin gabe.

5.1.3 Fakturazioa eta Ordainketa.

Zerbitzua emateagatik faktura daitezkeen kontzeptu guztiak hila igarotakoan fakturatuko dira, hilean behin, eta MOVISTARrek Telefonoaren Oinarrizko Zerbitzua (STB) edo RDSI oinarrizko Sarbide Zerbitzua emateari dagokion fakturan sartuko dira.

Zerbitzuari dagokion ordainketa BEZEROAREN Telefonoaren Oinarrizko Zerbitzuari edo RDSI Oinarrizko Sarbide Zerbitzuari dagokion faktura kobratzeko orduan eskatu ahal izango da, eta Bankuko edo Aurrezki Kutxako adierazitako kontuaren bitartez egingo da edo, bestela, MOVISTARrek horretarako adieraztako lekuan, zeina Bezeroari bidalitako ordainketa-abisuan zehaztuko den. Fakturan ordainketa egiteko epea zehaztuko da.

Horrez gain, eskaintzan sartutakoak gainditzen dituzten satellite bidezko TBko edukiei dagozkien kontzeptuak faktura independentean sartuko dizkio bezeroari DTS-ek, horien gozamina izateko BEZEROAREN eta DTS-ren artean egindako kontratuan xedatutakoari jarraiki.

Baldintza honen arabera igorritako lehenengo fakturan, dagokionean, alta eta deskodegailuaren instalazioa eta kable-konexioa sartuko dira, instalazioaren gainerako zerbitzuei dagoekien zerbatekoarekin batera. Lehenengo kuota Zerbitzua indarrean sartu den dataren arabera kalkulatu da.

MOVISTAR+ kontratatuz gero, BEZEROAK ezinbestez onartu beharko du faktura formatu elektronikoa jasotzea, nahiz eta, une honetan, faktura orrian jasotzeko eskubidea izan.

Hori onartzeak esan nahi du faktura formatu elektronikoa luzatuko dela baita ere BEZEROAK Telefónica de España, S.A.U. enpresarekin kontratatu duen edo kontratatuko duen beste produktu guztientzat ere.

Ordainketa atzeratuko balitz, MOVISTARrek Zerbitzuen hornikuntza eten ahal izango du, BEZEROARI ordaintzea eskatu ondoren, hark ordaindu ez badu eskakizuna egin denetik zazpi (7) eguneko epean.

Aipaturiko epea agortuta, MOVISTARrek BEZEROARI berriro eskatuko balio ordaintzea, eta horretarako beste hamar (10) egun gehiago emango balizkio, haiek gaituta, MOVISTARrek Zerbitzua behin betiko eten ahal izango du eta hari baja eman.

MOVISTARrek zordundutako zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duen egunaren hurrengo lanegunean berrezarriko ditu zerbitzuak, eta BEZEROARI kobreatuko dio zerbitzuen berrezarpenari dagokion zenbatekoa, hau da, 25 euro (30,25 BEZ barne).

Halaber, ordaindu ezean, zorrari buruzko datuak kreditu-informazioko sistemak kudeatzen dituzten erakunde hauei jakinarazi ahal izango zaizkie: ASNEF, EQUIFAX IBERICA, S.L. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema; BADEXCUG, Experian Bureau de Crédito, S.A. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema, eta BEZEROARI behar bezala jakinarazten zaion beste edozein.

5.1.4 Deskodegailua

BEZEROAK betebeharrak hauek izango ditu:

a) MOVISTARrek alokatutako ekiporen erabilera eta manipulazio egokia eta zuzenaren erantzukizuna, DESKODEGAILUA entregatzen den unetik aurrera.

Gainera, alokatutako terminalen hondatze edo galeraren erantzule ere izango da, gertaera horiek bere erruarengatik izan ez direla frogatzeko gai denean izan ezik.

b) Berehala jakinaraztea MOVISTARri alokatutako terminalen inguruko edozein kalte, erreklamazio, ekintza, helegite edo enbargu.

Halaber, terminalen titularra MOVISTAR dela jakinarazi beharko du haiek enbargatu nahi dituztenen aurrean edo haien aurka ekintzatik, helegiterik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi dutenen aurrean.

c) Kontratu hau bukatzean, 15.2 atalean bildutako baldintzetako batengatik, BEZEROAK DESKODEGAILUA kontratua bukatu eta hurrengo 15 egunetan itzuli beharko du, adieraziko den prozedurari jarraituta, 1004 telefonora deituz edo www.movistar.es/importes weborrian.

BEZEROAK ez balu DESKODEGAILUA aipaturiko epean itzuliko edo hura matxuraren batekin edo gehiegikeriaren baten ondorioz kaltetuta itzuliko balu, hari atalen bat faltako balitzaio edo ez balitz

MOVISTARrek emandako modeloa izango, BEZEROAri fakturatuko zaio deskodegailu horri dagokion kantitatea, www.movistar.es/importes webgunean datozen prezioen arabera. BEZEROAK MOVISTARrek baimendutako langileei baimendu behar die DESKODEGAILUA jarrita dagoen helbide edo kokapenera iristea, baja eman eta hurrengo hogeita hamar egun naturaletan, arrazoi teknikoak direla eta, zerbitzuaren baja behar bezala emateko bertan zerbitu egin behar dutenean eta baimena ere emangodite langileei DESKODEGAILUA kentzeko.

5.2 MOVISTAR+ zerbitzuarekin bateragarriak diren iraupen-konpromisoak

MOVISTAR+ kontratatzeak ez du iraupen-konpromisorik hartzea eragingo, Zuntz Optikoaren lehenengo instalazioari dagokion baldintza honen hirugarren baldintza izan ezik.

MOVISTAR+ kontratatzeak ez du baliogabetuko, ezer ordaindu beharrik gabe, BEZEROAK MOVISTAR + kontratatu aurretik hartutako konpromisorik, ezta zerbitzu finkoei lotutakorik ere, hurrengo salbu: MOVISTAR+ kontratatzean BEZEROAK aurretik 12 hilez irauteko konpromisoa balu, bere etxean Zuntz Optikoaren lehen instalazioaren altaren ondorioz, iraute hori 3 hile murriztuko da hasi zenetik kontuan hartuta. MOVISTAR + kontratatzeko unean hiru hilabete horiek igarota baleude, iraugintzat emango da eta 3 hileko aldi hori bukatu arte gelditzen dena irauten beharko da.

Kasu horretan, Zuntz sarbideko Internet zerbitzuari baja emango balitzaio 3 hile horiek igaro aurretik, BEZEROAK MOVISTARri ordaindu beharko dio konpromiso horretan bete ez duen denborari dagokion zenbateko proportzionala, gehienez zerbitzu honen Baldintzetan zehazten den hobaridun kuotari dagokiona.

5.3 Movistar Zerbitzuaren Erabilera Baldintzak.

5.3.1 Zerbitzuaren eta mugen erabilera zuzena

Zerbitzurako sarbidea Espainiako lurraldera dago mugatuta.

MOVISTAR+ ZERBITZUA lokal publiko edo apustu-lokaletan erakusteko, BEZEROAK merkataritza-erabilerarako MOVISTAR+ modalitatea kontratatu beharko du (are zehatzago, Movistar+ Lokal Publikoak edo Movistar+ Apustu-lokalak).

BEZEROA izango da erantzulea kontratatutako zerbitzuak behar bezala erabiltzen ez direnean. Are zehatzago, BEZEROAK merkataritza-erabilerarako zehazki kontratatu duenean MOVISTAR+ ZERBITZUEN modalitate bat (MOVISTAR+ Locales públicos), MOVISTARrek idatziz baimendu ez dituen merkataritza eta publizitateko jarduera ororen erantzule bakarra izango da edo MOVISTARrek adierazitako moduan egiten ez denean edo publizitate arloan, kontsumitzaileen edo jabetza intelektual zein industrialeko arloetan indarrean dauden araudien arabera egiten ez denean, eta baita MOVISTAR+ ZERBITZUAREN merkataritza-ustiapena burutzeko baimenak eta litzentziak lortzearena ere. Gainera, bere gain izango dira haiei lotutako gastuak, kostuak, tasak eta tarifak.

Gutziz debekatuta dago public screening delakoaren jarduerak edo jendaurrean erakustekoak egitea kontratatutako Zerbitzuari dagokionez, eta baita kontratatutako Zerbitzua ikusteko sarrerak edo prezio bat jartzea. Hemen baimendutako beste Zerbitzuren baten erabilerak eskubidea emango dio MOVISTARri hura ematen uzteko edota Bezeroaren egoera hark egindako erabileraren arabera arautzeko, edo Kontratua amaitutzat emateko.

Gutziz debekatuta dago edukiak lokal publikoetan edo apustu-lokaletan erakustea, Gailuen bitartez. Aipaturiko zerbitzuaren erabilera okerraren ondorioz, Movistarrek bezero horri esleitu ahal izango dio, hari aurretik jakinarazita, adierazitako erabileren ereduaren arabera tarifa. Halere, bezeroak merkatuko tarifetatik egokiago iruditzen zaion beste tarifaren bat eskatu ahal izango du.

BEZEROA izango da jakinarazpen publiko eta Telebista-zerbitzuak Lokalean emateagatik eta zabaltzeagatik jabetza intelektualeko eskubideen kudeketa-entitateei egin beharko dien ordaintzen erantzulea ordaintzearen erantzulea, indarrean dagoen araudiaren arabera

5.3.2 - Sarbide-gakoak.

Sarbide-gakoekin lotuta, BEZEROAren betebeharrak dira:

5.3.3 - Esleipena.

Une bakoitzean emandako Zerbitzuen ezaugarri teknikoaren arabera, MOVISTARrek BEZEROAri eskatu ahal izango dio erabiltzaile-izena (login) eta pasahitz batzuk (password) erabiltzea hainbat Zerbitzu erabiltzeko (aurrerantzean, "Sarbide eta Erosketa Gakoak").

MOVISTARrek bere kabuz eta nahi duenean aldatu, eten edo baztertu ahal izango ditu BEZEROAK MOVISTARren zerbitzu desberdinetan izan ditzakeen erabiltzaile-izenak edo Sarbide eta Erosketa Gakoak bateratzeko, eta hala jakinaraziko dio BEZEROAri ahalik eta bizkorren.

BEZEROAK pasahitza aldatu ahal izango du edozein unetan pasahitza aldatzeko, MOVISTARrek zehazten dituen baldintzetan.

5.3.4 - Erabilera eta zaintza.

BEZEROAK Sarbide eta Erosketa Gakoen erabilera zuzena egiteko konpromisoa hartuko du, eta haiek isilpean gordetzeko ere.

Edonola ere, BEZEROAK haren Sarbide gakoak zerbitzuak erabiltzeko gakoak dagozkien gastuak ordainduko ditu, BEZEROAK MOVISTARri Sarbide-gakoak desaktibatzea eskatu arte.

MOVISTARrek bere bezeroen sarbide-gakoen konfidentziasuna bermatuko du.

5.3.5 Norberaren Zerbitzuaren Edukiak hirugarrenen eskura jarri eta hedatzea.

BEZEROAren betebeharra izango da Norberaren Edukiak legearen, Baldintza Orokor hauen eta moralaren eta oro har onartutako ohitura onen zein ordena publikoarenaren arabera erabiltzea.

5.3.6 - Informazioa lortzeko baliabideak.

BEZEROAren konpromisoa izango da gunearen Zerbitzuen bitartez Edukiak ez lortzea edo lortzen ez saiatzea kasu bakoitzean emandako edo horretarako adierazi diren baliabide edo prozeduren bitartez ez bada.

5.3.7 Besteen Edukien erabilera zuzena.

BEZEROaren betebeharra izango da MOVISTAR+ ZERBITZUAREN bitartez lortutako edukiak zuzen eta legearen, moralaren eta oro har onartutako ohitura onen arabera erabiltzea. Are zehatzago, BEZEROaren betebeharra izango da honakorik ez egitea: (a) jendea komunikazio publikoko moduren batean edukiak kopia, banatu edo aldatzea dagozkien eskubideen titularren baimenik gabe, edo lege baimenduta dagoenean izan ezik; (b) "copyright" -a eta Edukietan barneratutako titularren eskubideengainerako datu identifikatzaileak, zein babes-gailu teknikoak, hatz-marka digitalak edo Edukiek izan ditzaketan beste informazio-mekanismoak kendu, saihestu edo manipulatzeko; (c) Edukiak legearen, moralaren aurka edo oro har onartutako ohitura onen edo orden publikoaren aurka erabiltzea.

5.4 SARBIDEA BEZEROaren instalazioetara

BEZEROaren betebeharra izango da, aldez aurretik eskatuta eta hitzordua emanda, MOVISTARri baimena ematea, behar bezala identifikatutako haren langileei edo horretarako MOVISTARrek bidalitako teknikariei zerbitzura konektatutako instalazio edo ekipamendu informatikoa atzitzeko Instalazio edo mantentze-lanak egiteko xedearekin, MOVISTARren ustetan beharrezkoak direnean eta, Kontratua bukatutzat ematen denean, zerbitzuko konexioa ahalbidetzen duen instalazioa kentzeko.4.2

5.5 - Zerbitzurako sarbidea kendu eta etetea.

MOVISTARrek MOVISTAR+ ZERBITZUA behin betiko edo aldi baterako eten ahal izango die Baldintza Orokor hauetan zehaztutakoa betetzen ez dutenean.

6 MOVISTAR+ ZERBITZUAREN ALDAKETAK

Bezeraoak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri emateko Movistar-i, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagozkionak.

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri emateko Movistar-i, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagozkionak.

Movistar-ek, Alderdien arteko prestazioen oreka berrezartzeko helburu bakarrarekin, kontratuan zehaztutako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, horren prezioa. Horretarako, arrazoi hauetako bat izango du, Movistar-ek Zerbitzuaren tarifak finkatu eta geroagoko egoera baten ondorio direnean:

- Movistar sartuta dagoen enpresa-sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo emandako Zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.
- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).
- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri eman behar dio bezeroari dagokion arrazoi xedatuarekin, gutxienez, aldaketa gauzatu baino hilabete BAT (1) lehenago. Bezeroak eskubidea du kontratua penalizaziorik gabe eteteko, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuei kalterik egin gabe. Hilabete bateko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.

7 - ZERBITZUAREN BITARTEZ ATZITU DAITEZKEEN EDUKIEN ETA ZERBITZUEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA.

7.1 - Zerbitzuen erantzukizuna.

7.1.1 MOVISTAR+ ZERBITZUAREN jarraitutasuna

MOVISTARrek ZERBITZUAREN jarraitutasuna 5.3 baldintzan azaldutako terminoetan bakarrik bermatuko du

7.1.2 Zerbitzuen erabilgarritasuna eta fidagarritasuna.

MOVISTARrek ez du bermatuko zerbitzuak erabilgarriak izatea jarduera zehatz bat egieko, ezta hura edo haien bitartez atzitu daitekeen edukia fidagarria izatea, are zehatzago, baina ez soilik, BEZEROAK Interneten dauden lekuak atzitu ahal izatea, hirugarrenen eskura jartzea, hedatzea edo biltzea zein haren bitartez edukiak jaso, lortu edo atzitzea ere.

MOVISTARREK EZ DU BERE GAIN HARTUKO AURREKO PARAGRAFOAN AZALDUTAKO KALTEEN AURREAN, MOVISTARREN ERRUA SOILIK IZAN DENEAN IZAN EZIK.

7.1.3 - Zerbitzuen erabileraren pribatutasuna eta segurtasuna.

MOVISTARreke du bermatuko zerbitzua BEZEROek erabiltzen dutenean haren pribatutasuna eta segurtasuna mantentzea eta, are zehatzago eta, ez du bermatzen baimenik gabeko hirugarrenek BEZEROEK internet erabili dezaketen modua, baldintzak edo ezaugarriak ez edukitzea edo ezin sartzea edo, dagokionean, oztopatzea, kentzea, aldatzea edo manipulatzeko BEZEROEK Zerbitzuaren bitartez transmititzen, jasotzen, lortzen edo atzitzen duten eduki guztiak atzitu ezin izatea.

MOVISTARREN ERANTZUKIZUNA EZ DA IZANGO, ARAUDI JURIDIKOAK AHALBIDETZEN DUEN HEINEAN, AURREKO PARAGRAFOAN ADIERAZITAKO BALDINTZAK DITUZTEN EGOERETAN GERTA DAITEKEEN KALTE EDO GALEREN AURREAN, MOVISTARREN ERUZ SOILIK GERTATU DENEAN IZAN EZIK.

7.2 - Edukien gaineko erantzukizuna.

7.2.1 Kalitatea

MOVISTARrek ez du edonola ere bermatzen birusik ez dagoenik zerbitzuen bitartez transmititu, hedatu, biltegitatu, jasotako, lortutako edo eskura jarritako dukietan, edo BEZEROAren ekipoan zein BEZEROAren ekipo informatikoan biltegitatutako edo hartatik transmititutako dokumentu elektronikoa eta fitxategietan aldaketak eragin ditzaketenean beste elementurik ez dagoenik.

EZ DA MOVISTARREN ERANTZUKIZUNA IZANGO ZERBITZUEN BITARTEZ TRANSMITITUTAKO, HEDATUTAKO, BILTEGIRATUTAKO, ZABALDUTAKO, JASOTAKO, LORTUTAKO, ESKURA JARRITAKO EDUKIETAN BIRUSIK EDO ELEMENTU KALTEGARRIRIK EGOTEAREN AURREAN.

7.2.2 - Zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna.

MOVISTARrek ez du parte hartzen MOVISTARrek ekoiztutakoak ez diren Zerbitzuen bitartez transmititutako, hedatutako, biltegitatutako, jasotako, lortutako, eskura jarritako Edukien sorreran, transmisioan edo eskura jartzean, eta ez du inolako kontrolik eta ezin du bermatu haien zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna.

MOVISTARREK EZ DU BERE GAIN HARTUKO ZERBITZUEN BITARTEZ TRANSMITITUTAKO, HEDATUTAKO, BILTEGIRATUTAKO, ESKURA JARRITAKO, JASOTAKO, LORTUTAKO EDO ATZITUTAKO EDUKIEK ERAGINDAKO KALTE EDO GALEREN AURREAN ETA, ARE ZEHATZAGO, BAINA EZ SOILIK, HURRENGO KASUETAN: (A) LEGEA, MORALA ETA ORO HAR ONARTUTAKO OHITURA ONAK EDO ORDENA PUBLIKOA URRATZEN DENEAN; (B) JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEAK, ENPRESA-SEKRETUAK, EDONOLAKO KONTRATU-KONPROMISOAK, OHORE-ESKUBIDEAK, NORBERAREN INTIMITATEA ZEIN SENIDEENA ETA PERTSONEN IRUDIA EDO HIRUGARREN BATENAK URRATZEN DIRENEAN; (C) LEHIA DESLEIALEKO ETA LEGEZ KANPOKO PUBLIZITATEKO JARDUERAK BURUTZEN DIRENEAN; (D)

EDUKIEI BENETAZKOTASUNA, ZEHAZTASUNA, ZORROZTASUNA, PERTINENTZIA EDO TA EGUNEROKOTASUNA FALTA ZAIENEAN; (E) EDOZEIN XEDERENTZAT EGOKIA EZ DENEAN ETA EDUKIEK GEHIAGO ESKAINTZEN ZUTELA USTE ZENEAN; (F) EDUKIAK ATZITZEARI LOTUTA HIRUGARRENEK HARTUTAKO OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAK, ATZERATEAK EDO ETETEAK HIRUGARRENEK HARTUTAKO OBLIGAZIOEN ETA HIRUGARRENEK SINATUTAKO KONTRATUEN ONDORIOZ; (G) BANDA ZABALEKO ZERBITZUEN BITARTEZ MERKATURATUTAKO, EROSITAKO EDO EMANDAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUEN GEHIEGIZKO ERABILERA EDO AKATSEN ONDORIOZ.

7.3 - Hirugarrenek Zerbitzuen bitartez emandako zerbitzuen gaineko erantzukizuna.

7.3.1 Kalitatea

MOVISTARrek ez du aurretik kontrolatzen eta ezin du bermatu MOVISTAR+ ZERBITZUAREN bitartez hirugarrenek emandako zerbitzuetan birusik ez egotea

MOVISTAR EZ DA ERANTZULE IZANGO HIRUGARRENEK ZERBITZUAREN BITARTEZ EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATE ESKASAKERAGIN DITZAKEEN KALTE ETA GALEREN AURREAN.

7.3.2 - Zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna.

MOVISTARrek ez du zerikusirik izango hirugarrenek zerbitzuen bitartez emandako zerbitzuen konfigurazioan eta haiek ematearekin, eta ezin du bermatu hirugarrenei zerbitzuen bitartez emandako zerbitzuen zilegitasunik, fidagarritasunik eta erabilgarritasunik.

MOVISTARREK EZ DU BERE GAIN HARTUKO ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EMAN DITZAKETEN ZERBITZUEK ERAGINDAKO KALTE EDO GALEREN ERANTZUKIZUNA ETA, ARE ZEHATZAGO, BAINA EZ SOILIK, 7.3.1 ATALEKO ARRAZOIEN ONDORIOZKOEI

8 - JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK URRATZEN BADIRA EDO LEGEZ KANPOKO EDUKIAK HAUTEMATEN BADIRA JARRAITUKO DEN PROZEDURA.

MOVISTAR hauen aurka dago eta irmoki egingo die kontra: (i) jabetza intelektualeko eskubideen urratzea eta (ii) legez kanpokoak diren edukien edota zerbitzuen ustiapena.

MOVISTARrek ez ditu igorriko edo banatuko jabetza intelektuala urratzen duten edukiak edo legez kanpokoak direnak ikuspegi penalaren arabera haren egitura edo zerbitzuetan.

BEZERO edo hirugarren batek usteko balu Edukietako bat Zerbitzuaren bitartez emateak jabetza intelektualeko eskubideak urratzen dituela, BEZERO edo hirugarren horrek jakinarazpen bat bidali beharko du hurrengo datuekin:

(a) erreklamatzaileren datu pertsonalak: izena, IFZ/IFK, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa;

(b) benetako sinadura edo baliokidea, ustez urratu diren jabetza intelektualeko eskubideen titularren datu pertsonalekin edo bere izenean esku-hartzeko baimena duen pertsonarena;

(c) Ustez urratutako edukien adierazpen zehatza eta osoa, eta haiek non dauden;

(d) edukiak ustez urratu diren jabetza intelektualeko eskubideen titulararen baimenik gabe utzi direnaren adierazpen argi eta garbia;

(e) jakinarazpenean emandako informazioa zehatza denaren eta jabetza intelektualeko eskubideaj urratzen dituzten edukiak sartu direnaren adierazpen zehatz, argi eta garbia, erreklamatzaileren erantzukizunarekin.

BEZEROAk edo hirugarren batek legez kanpoko erabilera egon dela uste badu, ikuspegi penaletik, bai Eduki edo Zerbitzua, edo haiekin lotutako legez kanpoko jardueraren bat hautematen badu, MOVISTARri jakinarazi beharko dio, hurrengo datuak emanaz:

(a) erreklamatzaileren datu pertsonalak: izena, helbidea, telefono-zenbakia, IFZ/IFK eta helbide elektronikoa;

(b) burutako legez kanpoko jardueraren zehaztapena eta, are zehatzago, Eduki edo Zerbitzuak zein diren eta non dauden.

(c) Eduki, Zerbitzu edo jarduera horien legez kanpoko erabilera agerian uzten duten gertakizun edo egoerak;

(d) erreklamatzaileren aitortpen argi, garbi eta bere erantzukizunekoa, non esaten den jakinarazpenean emandako informazioa zehatza dela eta adierazitako jarduerak burutzeak edo Eduki edo Zerbitzuak erabiltzeak legea urratzen duela.

Jakinazpen horiek abuse@movistar.es helbidera edo <http://www.movistar.es/nemesys/> orriko formularioaren bitartez.

9 - LIZENTZIARIK GABE.

MOVISTARrek BEZEROAri baimena ematen dio titularra den Zerbitzuei dagozkien jabetza intelektual, industrial eta enpresa-sekretuen eskubideak erabiltzeko Baldintza Orokor hauetan zehaztutakoaren arabera zerbitzuak erabiltzeko. MOVISTARrek ez du lizentziarik edo baimenik ematen Zerbitzuekin lotutako jabetza intelektualeko, industrialeko, enpresa-sekretuen edo eskubideen inguruan bestelako eskubideen inguruan.

IP helbideak ez dira BEZEROArenak izango, beraz, MOVISTARrek aldatu ahal izango ditu hura eskatzen duten arrazoiak daudenean, eta hala jakinaraziko dio BEZEROAri.

Gainera, MOVISTAR ez da erantzulea izango BEZEROAK edo hirugarrenek erabilera okerra edo iruzurrekoa ematen badiote BEZEROARI atzitze bakoitzean eman zaion IP helbideari.

10 – EDUKI-GOMENDATZAILEA

MOVISTAR+ ZERBITZUAK eduki-gomendatzaile bat hartzen du barne, zeinak BEZEROARI etxeko kontsumoari egokitutako telebista-edukiak erakutsi eta aurkeztuko dizkion. Horrela, Movistar+ telebistako plataformaren bilatzaile nagusietan ez du zertan denborarik galdu behar eta eduki berriak eskainiko zaizkio, hala nola interesatu ahal zaizkion estreinaldiak.

Funtzio honen prestazioak nahitaez zure bezero gisako datuak eta kontratatutako zerbitzuak tratatzea inplikatzeko du MOVISTAR+ ZERBITZUA altan dagoen bitartean, eta baita Movistar+ Zerbitzuko plataformen bidez (telebista edo gailuak edota aplikazioak) ikusitako edukien datuak ere, betiere bezeroari bere etxeko kontsumoari egokitutako telebista-edukiak erakutsi eta aurkezteko xedearekin. Halaber, eduki hauek pertsonalizatuko dira jada ikusi dituen edukiak edo haren kontsumo-ohiturekin zerikusirik ez duten edukiak berriz ez gomendatzeko.

MOVISTAR-ek ez du inola ere erabiliko BEZEROAREN ekipo informatikoan bildutako informazioa berreskuratzeko teknologiarik (dagoeneko instalatuta dauden MOVISTAR-en "cookieak" izan ezik, Movistar-en webguneko Cookiei buruzko politikan jakinarazten direnak).

Baldintza Orokor hauetan adierazten denaren arabera, cookieak datuen fitxategi txikiak dira, Zerbitzura sartzen den gailuan gordetzen direnak (ordenagailua, Smartphona, Tableta edo erabiltzaileari Zerbitzura sartzera ahalbidetzen dion beste edozein gailu). Cookie hauek Erabiltzailearen jarduerari buruzko informazioa biltzen dute eta MOVISTAR-i ahalbidetzen diote, adibidez, edukien azken bilaketa gogoratzera, edukiak "jada ikusiak" bezala seinatzea, erabiltzaileari interesatu ahal zaizkion edukiak gomendatzera, horien nabigazioa erraztera, etab. Beraz, BEZEROAK erabiltzen duen nabigatzailea teknologia hori erabiltzea onartzeko konfiguraturuta egon beharkoda.

Bezeroak bere nabigatzailea konfiguratzeko aukera du pantailan cookien harrera jakinarazteko eta gailuan hauen instalazioa galarazteko. Bezeroak bere terminaleko nabigatzailearen argibideak eta gidaliburuak kontsultatu behar izango ditu informazio hau handitzeko.

11 KONTRATU LAGATZEA

Kontratu honen xede den zerbitzua pertsonala da, baina bezeroak hirugarren bati laga diezaioke, Telefónica de España S.A.U.-k alde aurretik horretarako baimena ematen badiu. Telefónica de España, S.A.U.-k kontratu hau lagatu ahal izango du, bezeroari alde aurretik jakinarazita indarrean dagoen araudiaren arabera, eta bezeroak kontratua ebazteko izan dezakeen eskubideari kalterik egin gabe.

11.1 TB satellite bidez hornitzeko kontratua lagatzea.

TB emateko modalitatearen kasuan Satellite bidez sartzen denean, zerbitzu horretako baldintzak aplikatuko dira, zeinak hemen datozen: <http://www.movistar.es/particulares/television/movistar-plus>

Halaber, baldin eta bezeroak satellite bidezko TB hornitzeko zerbitzua kontratatu balu, DTS-rekin zerbitzu horrekin lotutako kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebeharren zati bat TELEFÓNICA DE ESPAÑA-ra uztea onartuko luke; betiere ekintza horrekin kontratatzen ari den MOVISTAR+ zerbitzua emateko beharrezkoa den heinean. Zehazki, baimentzen eta onartzen du TELEFÓNICA DE ESPAÑA-k kudeatu eta fakturatu dezakeela bere Satellite bidezko Telebista hornikuntza-zerbitzua. Ez dira hor sartzen kontratatzen ari den Fusión modalitatean sartu gabeko aparteko TB kontratazioak; ez haien zerbitzua, kudeaketa eta fakturazioa, ez eta hornitzeko zerbitzurako beharrezko materialari dagozkion eskubideak eta betebeharrak ere, horiek bezeroa eta DTS-ren artean izenpetutako kontratuan jasotakoaren arabera zuzenduko baitira.

Fusión-en baja eginez gero, TELEFÓNICA DE ESPAÑA-ren alde egindako zati bateko lagatze hori bukatu egingo da, eta BEZEROA eta DTS-ren arteko kontratu-harremanean jasotako edukiak eragin osoz berrezarriko dira.

12 MOVISTAR+ ZERBITZUA KENDU EDO LEGEZ ETETEA

MOVISTARrek MOVISTAR+ ZERBITZUA kendu edo eten ahal izango du bildu edo erreproduzitutako edukiak, datuak edo informazioa legez kanpokoak direla jakiten duenean, agintari eskudunari eskatu zaionean, epai edo administrazio-ebazpen bidez, edo jakiteko beste moduen bitartez. Kasu horretan, MOVISTAR ez da erantzule izango kentze edo eten horrek BEZEROAri eragindako kalte edo galeren aurrean.

13 MOVISTARREN EGIAZTATZE ETA ARAUTZE GAITASUNAK.

Gutziz debekatuta dago MOVISTAR+ ZERBITZUA lokal publiko edo taldeen lokaletan erakustea, BEZEROAK markataritza-erabilerarako MOVISTAR+ ZERBITZUAren modalitate bat kontratatu duenean izan ezik (are zehatzago, Movistar+ Locales Públicos edo Movistar+ Locales de Apuestas).

MOVISTARrek eskubidea du nahi duenean MOVISTAR+ ZERBITZUAREN MOVISTAR+ Locales Públicos edo Movistar+ Locales de Apuestas BEZERO baldintza egiaztatzeke. Horretarako, BEZEROAK behar bezala identifikatutako ikuskariari eman beharko dio abonatu-baldintzaren egiaztagiria, eta kaletik ikusgarri egoteko lekuan jari beharko du zerbitzuaren abonatu guztiei postaz bidaliko zaien bereizgarria (pegatina), zeinak MOVISTAR+ locales públicos ZERBITZUAren edukiak igortzeko baimena duen lokala dela adieraziko duen.

Gainera, jakinarazten dizugu MOVISTAR+ ZERBITZUA lokal publikoentzat ez den beste zerbitzu batekin lokal publiko batean igortzeak erabilera ez zilegia edo baimenik gabekoa eragingo lukeela

eta, ondorioz, MOVISTARrek automatikoki aldatuko liokeela Bezeroari lokal publikoentzako egokiena litzatekeen tarifara, haren patroien arabera, zeinaren berri emango zaion.

14 IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Movistar-ek jakinarazten du bere bezeroen datuak Movistar-en Pribatutasun-Politikan ezarritakoaren arabera tratatuko direla, zeinaren oinarriko informazioa klausula honetan jasotzen den. Potilikaren eduki osoa hurrengo estekan kontsulta daiteke: www.movistar.es/privacidad, ale bat 1004an eskatuz edo Movistar Dendetan.

Izaera pertsonaleko datuen babeserako Europako araudiaren arabera eta aipaturiko Politikan ezarritakoa betez, Telefónica Taldeko hurrengo enpresak dira Movistar Bezeroaren datu pertsonalen tratamendurako erantzunkideak, kontratatuta dituen zerbitzu eta produktuen arabera: Telefónica de España, S.A.U., Telefónica Móviles España, S.A.U. eta DTS Distribuidora de Televisión Digital, S.A.U. (hemendik aurrera eta batera izena emanda, klausula honetan ezarritako xedeetarako, "Movistar").

Movistar-en bezeroaren datuak Zerbitzua emateko tratatuko ditugu, eta baita beste helburu batzuetarako ere, Movistar bezeroak Pribatutasun-Politikan baimentzen dizkigunak; gainera, Politika horretan bezeroak behar duen informazio guztia jasotzen da, bezeroaren baimena behar duten bestelako tratamendu batzuen gainean erabaki ahal izateko.

Bezeroak egintza honetan kontratua betearazteko beharrezkoak diren emandako datu pertsonalak, Zerbitzua emateko lortutakoak eta baita arreta- eta merkataritza-kanalen bidez lortutakoak ere, izaera pertsonaleko datuen informatizatutako fitxategietan sartuko dira, Movistar-en titulartasunpean.

Pribatutasun-Politikan jasotako tratamenduez gain, Zerbitzuaren erabilerarako baldintza hauek onartzean, Bezeroa jakinarazten da eta, MOVISTAR baimentzen du Zerbitzuaren programazioarekin zerikusia duen informazioa bidaltzera eta bezeroaren datu hauek bereziki tratatzera: kontratatutako zerbitzuak, fakturazioa eta Movistar+ -en egindako kontsumo-datuak, Zerbitzua emateko kontratuak dioen jarraiki.

Bestetik, Pribatutasun-Politikan aurreikusitako beste helburuetarako, Movistar-ek datuen erabilera bere kofiantzazko hornitzaileei esleitu ahal izango die. Hornitzaile horien kategorietan sailkatutako zerrenda eguneratua eta euren funtzioei jarraiki datuen nazioarteko transferentziak egiten dituztenena ere aurkituko duzu helbide honetan: www.movistar.es/privacidad/info-adicional.

Halaber, Movistar-ek datu horien isilpeko tratamendua ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela bermatzen du eta jakinarazten dizu, aipaturiko araudiaren arabera, datu horiek atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurkarazteko eta eramateko eskubideak erabili ahal dituzula, ondorengo posta elektronikoa honetara idatziz: (Gaia: DATUAK) TE_datos@telefonica.com, idazki bat bidaliz 46155 Posta-Kutxa, 28080, Madril helbidera, edo doaneko 224407 telefono zenbakiaren bitartez.

15 - AMAIERA.

15.1 Iraunaldia

Kontratu honek ez du iraungo, 5.3.7 eta 5.5 baldintzetan bildutakoa salbu, eta haren ebazpenari buruz zehaztutakoa izan ezik.

15.2 - Ebazpena.

Kontratu hau Zuzenbidean onartutako arrazoi orokorren ondorioz ebatziko da, eta baita baldintzetan zehar aurreikusitakoaren arabera, eta are zehatzago:

BEZEROAK erabakita, MOVISTARri baliozko bideren batez jakinarazita, eragina hartzeko data baino bi lanegun lehenago gutxienez.² Horretarako, hauek izango dira erabili ahal izango diren bideak:

- Faxez 902 104 132 zenbakira.
 - 1000 Posta-kutxatila. 08080. Bartzelona.
 - Telefonoz 1004 zenbakira.
- MOVISTARrek MOVISTAR+ ZERBITZUA ematea utzita, kontratua amaitu beharrik gabe, BEZEROARI uzte hori baino hogeita hamar (30) egun lehenago jakinarazita.
- Kontratu honen ondoriozko obligazioak larriki urratzearen ondorioz, eta baita fede onez edo Baldintza Orokorrean bildutako erabilera oneko baldintzen aurka erabiltzeagatik, dagozkion kalte eta galeren erreklamazioak salbu.

15.3 Efektuak

Baldintza Orokor hauei dagozkien SERVICIO MOVISTAR+ ematen bukatutakoan, MOVISTARrek BEZEROARI fakturatuko dio, dagokionean, azken hileko kuotaren zati proportzionalaren zenbatekoa eta hark kontsumitutako zerbitzuena, bajaren eraginkortasun-dataren arabera.

Kontratu honen amaieran, 15.2 baldintzan bildutako arrazoiren batengatik, BEZEROAK derrigorrez itzuli beharko du deskodegailua BEZEROAK DESKODEGAILUAREN inguruan dituen obligazioen inguruko 5.1.4 baldintzan zehazten den bezala.

Bezerearen baja burutzen denean Movistar+ Zerbitzuan, baina ez telefonoko linea finkoan eta ADSL/Zuntza zerbitzuan, altan jarraitzen duten zerbitzuak ematen jarraituko dira, kontratuko baldintzen arabera eta dagozkion Katalogoko prezioen arabera.
Satelite bidezko TB hornitzeko zerbitzuari dagokionez:

Une horretan DTSan erabil daitekeen produktua erabiltzen jasiko da, zerbitzu horren alta-kontratuan zehaztutako prezioan, edo haien ordezkoean, zeinak hemen ikus daitezkeen: <http://www.movistar.es/particulares/movistarplus> edo 902 11 00 10 arretarako telefonoan.

16 - JAKINARAZPENAK

Kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera eta hura betetzeko, BEZEROAK MOVISTAR-i egin behar dizkion jakinarazpenak telefono bidez egingo dira MOVISTAR-en arreta pertsonalerako zenbakien bidez, edo idatziz, kontratu honetan zehar eta, bereziki, 19. klausulan aurreikusitako posta-kutxetara edo posta-helbideetara.

Bestalde, MOVISTAR-ek BEZEROARI egiten dizkion jakinarazpenak, aldaketak eta komunikazioak modu hauetakoren batean egingo dira:

(a) Kontratazioa egitean BEZEROAK horretarako adierazitako posta-helbidera bidalita. Adierazi ezean edo hasieran adierazitako helbidearen aldaketarik jakinarazi ezean, ondorio guztietarako, BEZEROAREN helbidea zerbitzua ematen den tokia dela ulertuko da, eta bat baino gehiago badira, horietako edozein.

(b) Posta elektronikoz bidalita, ahal dela, BEZEROAK MOVISTAR-i horretarako ematen dizkion edozein helbide elektronikora.

(c) Telefonoz edo SMS bidez jakinarazita, hala badagokio, bai BEZEROARI ZERBITZUA ematen zaion telefono-zenbakira, bai BEZEROAK ZERBITZUAN alta eskatzeko inprimakian adierazitako telefono-zenbakira, edo BEZEROAK, Baldintza honen arabera, geroago aldatu tako telefono-zenbakira.

d) Bezeroaren "Mi Movistar" gune pribatuaren bidez jakinarazita, zeina www.movistar.es webgunearan edo "Mi Movistar" aplikazioaren bidez atzi daitekeen, edo horien ordezkari erabiltzen diren izenen bidez.

e) MOVISTAR+-en informazio-pantailen abisu eta jakinarazpenen bidez.

f) Bere Web orrietan argitaratuta, informazio hori BEZERO guztientzat orokorra denean.

Zentzu horretan, BEZEROAK adierazten du berak emandako datu guztiak egiazkoak eta zuzenak direla, eta konpromisoa hartzen du MOVISTAR-i bere etxean edo beste edozein helbide edo harremanetarako datuetan, kobrantza-datuetan eta MOVISTAR eta BEZEROAREN arteko kontratu-harremana kudeatu eta mantentzeko beharrezkoa den beste edozein informaziotan gertatzen diren aldaketak jakinarazteko.

17 - APLIKATUKODEN LEGEA.

Kontratu honen Xede diren Zerbitzuak espainiar legeriaren arabera emango dira.

18 - GATAZKEN EBAZPENA.

(I) BEZEROAK MOVISTARren aurka erreklamazioa jartzen duenean, hilabete bateko epean ebatzi ez bada, edo ebatzita ere onartua izango ez balitz, BEZEROAK erreklamazioa Kontsumoko Arbitraje Batzordera aurkez dezake erreklamazioa.

-(II) MOVISTARrek eta BEZEROAK, une bakoitzean eskudun izango diren Epaitegi eta Auzitegien mende geratzen dira, indarrean dagoen legeriaren arabera, Baldintza Orokor hauen xede den Zerbitzua ematearen ondorioz egon daitekeen edozein eztabaida konpontzeko.

19 .- BEZEROARENTZAKO INFORMAZIOA

MOVISTARrek Kontratu honen edukia Interneteko bere orrian argitaratuko du, eta idatziz, BEZEROAK 1004 telefonoan eskatzen badu, eta baita Telefónicakodendetan ere.

I. ERANSKINA. PRECIOS LOCALES PÚBLICOS

Movistar+ de Locales Públicos Fútbol Zerbitzuaren prezioa honela kalkulatzen da:

- 1) Lokala helbideratuta dagoen herriko biztanle kopuruaren arabera:
 - 10.000 biztanle edo gutxiago.
 - 10.000 biztanle baino gehiago eta 45.000 biztanle edo gutxiago.
 - 45.000 biztanle baino gehiago eta 250.000 biztanle edo gutxiago.
 - 250.000 biztanle baino gehiago.

Kontratatzeko unean, prezioa lehen adierazitako tarteen arabera ezarriko da, eta Estatistika Institutu Nazionalak emandako erroldaren udal-xehetasunetik aterako den udalherri-kopuruaren arabera zehaztuko da, Movistar-en Pribatutasun-politikan aurreikusitakoari jarraiki, www.movistar.es/privacidad helbidean dagoena eskuragarri.

- 2) 250.000 biztanletik gorako herrien kasuan, kontratatzeke unean aplikatuko den prezioa Futbol HD/Futboleko harpidetzaren Hileko kuoten tauletan adierazitakoa izango da. Hala ere, 250.000 biztanletik gorako herrietan, 30 pertsona baino gutxiagoko edukiera ofiziala duten lokalek prezio murriztua izan dezakete.

Prezio murriztua atzitu ahal izateko, La Liga Servicios Digitales S.L.-k (aurrerantzean, La Liga) edukiera egiaztatu beharko du. Horretarako, La Liga-k eskatutako dokumentazioa aforo.laligatvbar.es/movistar webgunearen bidez eman behar du bezeroak.

Dokumentazio hori aurkeztu ondoren, La Liga-k zazpi egun naturaleko epean jakinaraziko dio bezeroari ziurtagiriaren emaitza, eta, eskatutako baldintzak betetzen baditu, Movistar-i jakinaraziko dio, emaitza positiboa duen ziurtagiria jaso eta 10 egun naturaleko epean, ziurtatutako edukieragatik dagokion prezioa alda dezan.

Aurreko paragrafoan deskribatutako ziurtapen-prozesuan aurkeztutako dokumentazioak argia eta egiazkoa izan behar du; izan ere, La Liga-k geroago lokalera egindako bisita batean egiaztatzen badu aurkeztutako hasierako dokumentazioa ez dela zuzena, baliogabetu egingo du edukieraren ziurtagiria, eta 7 eguneko epean jakinaraziko dio bezeroari, honek La Liga-ri emandako helbidera mezu elektronikoa bidalita. La Liga-k edukiera-ziurtagiria ezeztatu dela jakinarazi eta 10 egun naturaleko epean, Movistar-ek zerbitzuaren prezioa aldatuko du, eta lehen zehaztutako biztanleria-kategoriaren arabera egokituko du.

Prezio murriztua aplikatuko dela ziurtatzeko, bezeroaren identifikazio-datuak jakinarazi behar dira Movistar eta La Liga Servicios Digitales S.L.-ren artean.

Arestian aipatutako irizpideen arabera, prezio-taula hauek aplikatuko dira:

FÚTBOL BARES HARPIDETZAREN HILEKO KUOTAK		
Herriko biztanleria	FÚTBOL BARES hileko kuota (€/hileko, zergak barne)⁽¹⁾	FÚTBOL BARES HD hileko kuota (€/hileko, zergak barne)⁽¹⁾
10.000 arte	297,47	291,42
10.001 - 45.000	319,47	313,42
45000 - 250.000	336,47	330,42
>250.000	364,47	358,42

* 250.000 biztanletik gorako herrietan, kontratu honetan aurreikusitakoa betetzen duten 30 lagun baino gutxiagoko lokal ofizialek 292,42 euroko prezio murriztua izan dezakete.

BAR DEPORTES HARPIDETZAREN HILEKO KUOTAK		
Elementu komertziala	Hileko kuota (€/hileko, zergak barne)⁽¹⁾	
	SD	HD
Bar Deportes	82,00	76,00

TELEBISTA-KANALEN ZERBITZUAREN ETA MOVISTAR+ ZERBITZUAREKIN BATERAGARRIAK DIREN HARPIDETZA GEHIGARRIEN HILEKO KUOTAK	
Elementu komertziala	Hileko kuota (€/hileko, zergak barne)⁽¹⁾
DAZN Fórmula 1 Bar ⁽²⁾	7,00
Toros TV Bar ⁽²⁾	30,25
Multi+ Bares *	24,2
2 Multi+ Bares *	48,4

* Multi+ ZERBITZUA behar bezala emateko, BEZEROAK alokairuko DESKODEGAILU gehigarriak izan behar ditu MOVISTAR+ bistaratzeko.

Ekipamendua	Hileko kuota⁽¹⁾	Altaren kuota⁽¹⁾	Instalazioaren kuota⁽³⁾
UHD deskodegailua	Ez dagokio	40	50
UHD Smart WiFi deskodegailua		60	

⁽¹⁾ Prezio hauek ez dira Ceutan, Melillan eta Kanaria uharteetan ezarriko, hor zeharkako zerga murriztuak ezartzen baitira, indarrean dagoen legeriaren arabera: Kanarrietan %7 IGIC, Ceutan: %10 IPSI eta Melillan %8 IPSI.

⁽²⁾ Aurreko kanal gehigarriren bat kontratatu ondoren, kontratatu ondoko lehen 15 egunak igaro aurretik utziz gero, kuotaren %50 ordaindu beharko da, edukiak eskuratzeko zerbitzuari lotutako kostu gisa, eta hileko kuotatik dagokion zatia ere bai. Bi zenbateko horien batuketak ezin izango du inoiz ere gainditu kontratatutako kanalak duen hileko kuotaren balioa.

⁽³⁾ Kuota hau ez da aplikagarria TV eta Multi+ -en aldi bereko altaren kasuan, edo aukera autoinstalagarria aukeratzeko den kasuan.

- Gainerako ekipamenduaren prezioa eta zerbitzuko aukera gehigarriak une bakoitzean ondoko URLean dagoen eskaintzaren arabera fakturatuko dira: <http://www.movistar.es/particulares/television/movistar-imagenio>
- MOVISTAR+ ZERBITZUKO eskaintza komertziala oso zabala da eta etengabe aldatzen ari da. Hemen, zerbitzuko modalitatearik ohikoena daude jasota. Zehatzago ikusteko, jo web orri honetara: www.movistar.es

II. ERANSKINA. PRECIOS LOCALES DE APUESTAS

TELEBISTA-KANALEN ZERBITZUAREN ETA MOVISTAR+ ZERBITZUAREKIN BATERAGARRIAK DIREN HARPIDETZA GEHIGARRIEN HILEKO KUOTAK	
Elementu komertziala	Hileko kuota (€/hileko, zergak barne) ⁽¹⁾
APUESTAS HD (Apustu-lokalentzat bakarrik)	515,42
APUESTAS (Apustu-lokalentzat bakarrik)	521,47
Multi+ Apuestas*	60,5
2 Multi+ Apuestas*	121

* Multi+ ZERBITZUA behar bezala emateko, BEZEROAK alokairuko DESKODEGAILU gehigarriak izan behar ditu MOVISTAR+ bistaratzeko

Ekipamendua	Hileko kuota ⁽¹⁾	Altaren kuota ⁽¹⁾	Instalazioaren kuota ⁽²⁾
UHD deskodegailua	Ez dagokio	40	50
UHD Smart WiFi deskodegailua		60	

⁽¹⁾ Precio hauek ez dira Ceutan, Melillan eta Kanaria uharteetan ezarriko, hor zeharkako zerga murriztuak ezartzen baitira, indarrean dagoen legeriaren arabera: Kanarietan %7 IGIC, Ceutan: %10 IPSI eta Melillan %8 IPSI.

⁽²⁾ Kuota hau ez da aplikagarria TV eta Multi+ -en aldi bereko altaren kasuan, edo aukera autoinstalagarria aukeratzen den kasuan.

- Gainerako ekipamenduaren prezioa eta zerbitzuko aukera gehigarriak une bakoitzean ondoko URLean dagoen eskaintzaren arabera fakturatuko dira: <http://www.movistar.es/particulares/television/movistar-imagenio>
- MOVISTAR+ ZERBITZUKO eskaintza komertziala oso zabala da eta etengabe aldatzen ari da. Hemen, zerbitzuko modalitaterik ohikoenak daude jasota. Zehatzago ikusteko, jo web orri honetara: www.movistar.es